

LAN-POLTSEN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen du.

Aipatutako araudiaren arabera, hautagai bakoitza bi egoeratan ager daiteke lan-poltsetan: «prest» edo «prest ez». Egoera hori desberdina izan daiteke poltsa bakoitzean, hautagai bakoitzaren lehentasunen arabera.

eLankidetzak aplikazio bat lantzen ari da, pertsona bakoitzak bere borondatez bere egoera alda dezan. Tresna hori prest ez dagoen bitartean, poltsaren batean edo guztietan egoera aldatu nahi dutenek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez eskatu beharko dute.